

## GOBERNU BATZARRA

2015. 10. 26

**Alkatea:**

**Olatz Peón Ormazabal**

**Zinegotziak:**

**Patxi Amantegi Zubiria  
Nerea Letamendia Belloso  
Jokin Azkue Arrastoa  
Iñigo Alonso Sarasibar**

**Beh. Beh. Idazkaria:**

**Karmele Contreras Goikoetxea**

**Beh. Beh. Kontuhartzailea:**

**Paulino Alonso Eraso**

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamabosteko urriaren hogeita seian 08:00tan Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko.

**1.- Aurreko akta onartzea.**

**2.-Udal Lankidetzaren Udalaren 2015. urteko dirulaguntzak banatzeko proposamena.**

**3.- Tolosako presoen familiei dirulaguntza emateko irizpideak.**

**4.- Irabazi Asmorik Gabeko Elkartearen Udal Erregistroan sartzeko eskaerak.**

**5.-Bikarte Elkartearen Dirulaguntza eskaera.**

**6.-31/2015 zenbakia duen faktura-zerrenda.**

### **1.- Aurreko akta onartzea.**

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2015eko urriaren 19an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

### **2.- Udal lankidetzaren 2015. urteko diru laguntzen banaketa.**

Gizarte Politikak eta Osasun Batzordeak aurkeztu du Udal Lankidetzari buruz egin behar diren diru laguntzen banaketa proposamena.

Aipatutako proposamenarekin bat etorritik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**ERABAKI DU**

**LEHENA.**- Tolosako udalerrian Gizarte Zerbitzuen eta Osasunaren arloan lan egiten duten taldeei diru laguntza hauek ematea:

| <b>TALDEAK</b>   | <b>2015.URTEKO PROPOSAMENA</b> |
|--|--------------------------------|
| AECC- Minbiziaren Aurkako elkarte                      | 750                            |
| AFAGI- Alzheimer duen gaixotasunaren familien elkarte. | 300                            |
| AFESTTA- Síndrome de Tourette                          | 490                            |
| AGIFES-Adimen gaixotasuna                              | 300                            |
| ARTUBI- Bedaioko 3. Adinekoen Elkarte                  | 500                            |
| ASLEMEGI- Gipuzkoako Orno-muineko Kaltetuen Elkarte    | 490                            |
| BETI GAZTEAK- Amarotzeko 3. Adinekoen Elkarte          | 1000                           |
| BETI IKASTEN ELKARTEA                                  | 190                            |
| CARITAS PARROQUIAL                                     | 9050                           |
| GURUTZE GORRIA (Gizarte Zerbitzuak+Osasuna)            | 1000                           |
| DYA  | 1000                           |
| ETXERAT  | 750                            |
| GAINDITZEN. Tolosa-Gohierriko Gorren Elkarte           | 1320                           |
| HARIZPE. Jubilatu eta Pentsionisten Elkarte            | 6160                           |
| HIRUKIDE GAINBERRI                                     | 300                            |
| HIRUKIDE JESUITINAK                                    | 500                            |
| ITURRIZA ELKARTEA- Tolosaldeko Helduen Elkarte         | 6500                           |
| IZAN FUNDAZIOA- GIZAKI HELBURUA                        | 900                            |
| LASKORAIN IKASTOLA                                     | 1200                           |
| NAGUSILAN  | 600                            |
| ODOL EMAILEEN ELKARTEA                                 | 300                            |
| ORIXE BHI  | 300                            |
| SANTA MARIA PARROKIA (Osasun pastoraltza)              | 100                            |
| SAMANIEGO HLHI   | 500                            |
| TOPA- Tolosaldeko Osasun Publikoaren Alde              | 300                            |
| OLARRAIN AUZOKO LAGUN ARTEA 3. ADINEKOEN ELKARTEA      | 500                            |
| <b>GUZTIRA</b>   | <b>35300</b>                   |

**BIGARRENA.**- Ezarrita dauden baldintzak ez betetzeagatik, honako elkarte hauei dirulaguntza ukatzea:

ARNASA. Gipuzkoako Fibrosi Kistokoaren Elkarte.  
 KATXALIN. Asociación de Mujeres afectadas de cáncer de mama y ginecológico.  
 TOIKO. Tolosaldea Lanbide Heziketa Institutuko ikasle ohien elkarte.

**HIRUGARRENA**.- Erabaki honen berri ematea taldeei, Kontuhartzaitzari eta Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako departamentuari.

### **3.- Tolosako presoen familiei dirulaguntza emateko irizpideak**

Dirulaguntzen helburua da presoen familiei laguntzea, bisita egiteak dakarren gastuari aurre egiteko

Gizarte Politikakako batzordean aurkeztu dira diru-laguntzak banatzeko ezarrita dauden baldintzen proposamena eta, besteak beste, honako hau jasotzen da: diru-laguntzak proportzionalak izango direla Tolosaren eta presoak dauden kartzeletako udalerrien arteko kilometro kopuruarekiko.

Beraz, Gizarte Politikak eta Osasuna batzordeak egin duen proposamenarekin bat etorriz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **ERABAKI DU**

**LEHENA**.- Diru-laguntzak banatzeko baldintzak onartzea.

**BIGARRENA**.- Gipuzkoatik kanpoko kartzeletan dauden presoen familiei, guztira, 3.320 €-ko diru laguntza banatzea.

**HIRUGARRENA**.- Dagokion deialdia prentsara bidaltzea.

**LAUGARRENA**.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta Gizarte Politikako departamentuari.

### **4.- Irabazi Asmorik Gabeko Elkarten Udal Erregistroan sartzeko eskaerak.**

Kontuan izanda elkarte honek, besteak beste, gizarte zebitzuekin zerikusia duten ekintzak egiten dituela eta udal erregistroan inskribatzeko ezarrita dauden baldintza guztiak betetzen dituela, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **ERABAKI DU**

**LEHENA**.- "ZUTANI"elkartea Irabazi Asmorik Gabeko Elkarten erregistroan inskribatzea.

**BIGARRENA**.- Erabaki honen berri ematea Gizarte Zerbitzuetako departamentuari,

“ZUTANI” elkarteari eta erregistroaren arduradunari.

.....

**AFESTTA” Fundazioak egin duen eskaera.**

Kontuan izanda elkarte honek, besteak beste, gizarte zebitzuekin zerikusia duten ekintzak egiten dituela eta udal erregistroan inskribatzeko ezarrita dauden baldintza guztiak betetzen dituela, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**ERABAKI DU**

**LEHENA.**- “AFESTTA” elkartearen irabazi Asmorik Gabeko Elkarten erregistroan inskribatzea.

**BIGARRENA.**- Erabaki honen berri ematea Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako departamentuari, “AFESTTA” elkarteari eta erregistroaren arduradunari.

**5.- “Bikarte” errusiar umeen harrerako elkarteak egin duen diru laguntza eskaera.**

Errusiar umeen harrerako “Bikarte” elkarteak diru laguntza eskaera egin du, istripu nuklearraren ondorioz irradiazioa jasan duten Errusiar Federazioko haurrak, umezurtzetxetatik edota desegituraturiko familietatik datozenak, hartzeko.

Hori ikusirik eta Gizarte Politika eta Osasun batzordeak jaulki duen diktamenarekin bat etorritik, Gobernu Batzar honek, aho batez,

**ERABAKI DU**

**LEHENA.**- “Bikarte” elkarteari 854,70 € diru laguntza ematea.

**BIGARRENA.**- Adieraztea, dirulaguntza zuritzeko, ondorengo dokumentuak aurkeztu beharko dizkiola Udalari:

- \* Urteko ekintzen behin betiko memoria
- \* Gastu eta diru-sarreraren likidazioa.
- \* Fakturak.
- \* Gizarte Segurantzaren eta Ogasuneko ziurtagiriak

**HIRUGARRENA.**- Erabaki honen berri ematea, Gizarte Politikako departamentuari, Kontuhartzaitzari eta Harizpe elkarteari.

**6- 31/2015 zenbakia duen faktura- zerrenda.**

Kontuhartzaitzak **31/2015** faktura zerrenda aurkeztu du; **231.200,11** €-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**ERABAKI DU**

**LEHENA.**- 31/2015 faktura zerrenda onartzea.

**BIGARRENA.**- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

**Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 9:30 tan.**

**ALKATEA**

**Beh. Beh. IDAZKARIA**